
Trasteleku publikoak

Batetik, gero eta lokal huts gehiago; bestetik, gero eta traste gehiago etxeetan... soluzioa? Bada, ez dakigu, baina zenbait udalek trasteleku publikoen alde egin dute. Horri buruz jardun dute Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Hausnartu trastelekuetan zer gorde ohi den.**
- **Irratsaioa entzun eta galderen erantzun zuzenak aukeratu.**
- **Lexikoa aberastu.**
- **Nor-nori ahalera praktikatu: *eman dakioke...***
- **Gaiaz aritzeko argudioak landu.**
- **Iritzi-artikulu bat idatzi.**



Azpeitiko Udala

Entzun aurretik

1. Baduzu trastelekurik?

Baduzu trastelekurik? Erantzun galderei, binaka.

TALDEAN



Trastelekua baduzu:
- Non?
- Nolakoa? Zenbat metro karratu ditu?
- Nolako gauzak gordetzen dituzu bertan?
- Zer egingo zenuke trastelekurik ez bazenu?

Trastelekurik ez baduzu:
- Faltan sumatzen duzu?
- Trastelekua bazenu, zer gordeko zenuke bertan?
- Etxetik hurbil trasteleku bat erosteko edo alokairuan hartzeko aukera suertatuz gero, zer egingo zenuke?

Esaldiok erabil ditzakezu:

- *Zer egingo nukeen trastelekurik gabe!*
- *Zer emango nukeen trasteleku bat izateagatik!*
- *Gauza gehiegi izateari uztea da gakoa: hartara, trastelekuen beharrik ez!*

BAKARKA

Entzun bitartean

2. Lexikoari erreparatzen

Entzun Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan trastelekuei buruz esandakoak, eta testuinguruari erreparatuta, lotu esanahi bera duten hitzak, adibidean bezala.

Hitzak	Esanahaiak
1. Eskaria	a) indibiduo, pertsona
2. Eskaintza	b) eskaintzen dena
3. Hazi	c) gorde
4. Bezero	d) eskatzen dena
5. Norbanako	e) eman, banatu
6. Arakatu	f) handitu
7. Biltegiratu	g) esanguratsu
8. Baliatu	h) hartzaile, interesdun
9. Zinegotzi	i) bilatu
10. Ekimen	j) ordezkari politiko
11. Esleitu	k) aprobetxatu, erabili
12. Adierazgarri	l) iniziatiba

guau gure audioa

Trastelekuak

ERANTZUNAK:

1 _**d**_ ; 2 ___ ; 3 ___ ; 4 ___ ; 5 ___ ; 6 ___ ; 7 ___ ; 8 ___ ; 9 ___ ; 10 ___ ; 11 ___ ; 12 ___ .

Aukeratu goiko hiru hitz eta sortu esaldi bana, zuretzat esanguratsua den zerbait esateko:

_____

_____

_____

Alderatu egindakoa ikaskide gehiagorekin. Erantzun zuzenak 8. orrialdean daude.

BAKARKA

3. Zer diote?

Entzun berriro Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan trastelekuei buruz esandakoak, eta aukeratu erantzun zuzena.

guau gure audioa

Trastelekuak

1. Zer erakusten dute datuek?
a) Trastelekuen eskaria ez dela horren handia.
b) Ez dagoela eskaintza handitu beharrik.
c) Eskaria eta eskaintza, biak handitzen ari direla dezente.

2. Europan trastelekuetara metro karratu asko bideratzen dira:
a) aipatutako lau herrialdeen artean, 2.000.000 m^2.
b) Erresuma Batuak soilik, 2.000.000 m^2.
c) Estatu Espainiarrak 2.000.000 m^2; gehien bideratzen duen laugarrena da.

3. Nor dira bezero nagusiak?
a) Ba, hasteko, alokairuan pisua konpartitzen duten lagunak.
b) Ba, hasteko, herrietako Alde Zaharretan bizi direnak.
c) Ba, hasteko, alokairuan bizi diren familiak.

4. Eta horiez gain?
a) Kiroldegira askotan joaten diren lagunak; maiz, unibertsitateko ikasleak.
b) Kirol-materiala gordetzeko lekua behar dutenak eta unibertsitateko ikasleak.
c) Batetik bestera ibili ohi diren langileak eta unibertsitateko ikasleak.

5. Irrati-esatarien arabera...
a) inbertsio handia eskatzen dute, baina merezi du.
b) inbertsio txiki-ertaina eskatzen dute, baina arriskuak handiak dira.
c) negozio gutxik ematen dute horrelako errentagarritasuna.

6. Zein ezaugarri dituzte Azpeitiko Alde Zaharreko etxeek?
a) Ez dute igogailurik, baina eskailera zabalak dituzte, eta handiak dira.
b) Ez dute igogailurik, eskailera estuak dituzte eta ez dute trastelekurik.
c) Igogailu zaharrak dituzte, eskailera zabalak eta, azken pisuan, trasteleku txikiak.

7. Azpeitiko trasteleku publikoen truke...
a) astean 25 euro ordaindu behar dira, eta dagoeneko 27 esleitu dira.
b) hilean 25 euro ordaindu behar dira, eta dagoeneko 50etik 27 esleitu dira.
c) hilean 25 euro ordaindu behar dira, eta dagoeneko 24 esleitu dira.

8. Zein da zuzena?
a) Komertzio txikiaren gainbeherak eragina izan du sektorearen hazkuntzan.
b) Euskal Herrian, Europan bezainbeste hazi da sektorea.
c) Europan hemen baino gehiago hazi da sektorea.

Alderatu egindakoa ikaskide batekin. Erantzun zuzenak 8. orrialdean daude.

BAKARKA

Entzun ondoren

4. Zein erabilera eman dakieke?

Irratsaioan, ekonomialariak hauxe esan du:

*"Badira hainbat lokal komertzial geure inguruetan, ba, komertzio txikiak dituen arazoengatik batik bat, erabili gabe daudenak, eta mota honetako erabilera eman **dakieke**enak".*

Esanahia hau da: *eman dakieke = eman ahal zaie*

Berridatz itzazu esaldi hauek forma trinkoak erabilita, adibidean bezala (behean duzu taula, nahi izanez gero, begiratzeko).

Adibidea: Etxe zaharrei hobekuntzak **egin ahal zaizkie** = ***egin dakizkieke***

1. Udalari proposamena egin ahal zaio = _____
2. Jendeari gauzak berrerabiltzeko eskatu ahal zaio = _____
3. Bizilagunei azokara gauzak eramateko proposatu ahal zaie = _____
4. Auzoari hobekuntzak egin ahal zaizkio = _____
5. Lokal horiei erabilera hobea eman ahal zaie = _____
6. Lokal horiei hobekuntzak egin ahal zaizkie = _____

NOR-NORI AHALERA (ERREALA)

NOR			NORI		
NA	ki		DA	ke	
HA	ki		A/NA	ke	
DA	ki		**O**	ke	
GA	ki	zki	GU	ke	
ZA	ki	zki	ZU	ke	
ZA	ki	zki	ZUE	ke	te
DA	ki	zki	**E**	ke	

Orain pentsatu zure herriko/auzoko lokal hutsetan, eta erantzun galderari: zein erabilera eman dakieke lokal horiei? Idatzi pare bat esaldi.

_____

_____

Berridezketen erantzunak 8. orrialdean daude. Esaldiak zuzentzeko, irakur itzazu ozen.

TALDEAN

5. Argudioak lantzen: alde edo kontra?

Irakurri egoera, eta, rolak adostuta, egin gaiari buruzko solasaldia, binaka. Horretarako, lehenik eta behin, pentsatu zure rolaren aldeko argudioak, eta partekatu itzazu zure rol bera duten ikasleekin.

Egoera:
Taberna batean zaude, alde zaharrean, lagunekin. Zenbait herritan egin dituzten trasteleku publikoen berri iritsi zaizue, eta gaiaz hizketan hasi zarete.



A ikaslea: oso ideia ona iruditu zaizu trasteleku publikoak egitea. Herrian/Auzoan aspaldi hutsik dagoen solairua etorri zaizu burura.

B ikaslea: ez zaizu batere ideia ona iruditu trasteleku publikoak egitea. Badira behar handiagoak, eta herrian/auzoan hutsik dagoen solairuarekin egiteko hainbat eta hainbat ideia bururatu zaizkizu, denak trastelekuena baino hobeak...

Pentsatu zure ideien aldeko argudioak:
Ondoren, pentsatu nola esango dituzun, eta arriskatu: begiratu 4. orrialdean, eta **erabili baliabide berriak!**





Irudiak: Azpeitiko Udala

BAKARKA

6. Trasteleku publikoak herrian/auzoan?

Hau etxean egin dezakezu. Irakurri egoera, eta idatzi iritzi-artikulu bat (300 hitz inguru). Amaitutakoan, eman irakasleari zuzentzeko.

Egoera:

Udalak proposamen bat egin du: herrian/auzoan aspaldi hutsik zegoen solairuan trasteleku publikoak egitea. 6-8 metro karratukoak izango dira eta urtean 300 euroko alokairua edukiko dute. Trastelekuak zozketaz esleituko dira. Eskualdeko astekarian zeure iritzia ematea erabaki duzu.



Biltegien sarrera (Azpeitiko Udala)

BAKARKA

ERANTZUNAK

2. Lexikoari erreparatzen

1-d; 2-b; 3-f; 4-h; 5-a; 6-i; 7-c; 8-k; 9-j; 10-l; 11-e; 12-g

3. Zer diote?

1- c; 2- c; 3- a; 4- b; 5- c; 6- b; 7- c; 8- a

4. Zein erabilera eman dakieke?

1. Udalari proposamena egin ahal zaio = egin dakioke
2. Jendeari gauzak berrerabiltzeko eskatu ahal zaio = eska dakioke
3. Bizilagunei azokara gauzak eramateko proposatu ahal zaie = proposa dakieke
4. Auzoari hobekuntzak egin ahal zaizkio = egin dakizkioke
5. Lokal horiei erabilera hobea eman ahal zaie = eman dakieke
6. Lokal horiei hobekuntzak egin ahal zaizkie = egin dakizkieke

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Eskaintza ere areagotzen. Eskaintza ere handitzen, zabaltzen.
Trastelekuetara bideratutako. Trasteleku gisa erabiltzeko.
Sarean arakatzen. Sarean, Interneten bilatzen.
Auzotar mordo bat. Auzoko biztanle pila bat.
Esleitu dira. Eman, adjudikatu dira.
Halan ekarri. Baita zuri ere.
Itxurazkoa emango du. Polita, itxura onekoa emango du.

TRANSKRIPZIOA

Iñaki Guridi: Hitz egin behar dugu trastelekuen fenomenoez (fenomenoaz), eskari hori handitu egin delako eta, horren aitzakian, eskaintza ere areagotzen ari delako; eta nola, gainera, Oihane.
Oihane Yustos: Datuek hala erakusten dute. Europan merkatua hazten ari da, eta Erresuma Batuaren, Frantziaren eta Alemaniaren atzetik, Espainiar Estatua bihurtu da trastelekuetara bideratutako metro karratu gehien dituen laugarren herrialdea: 2.000.000 m^2 bideratzen dira erabilera horretara. Nortzuk dira bezero nagusiak? Ba, alokairuan pisua konpartitzen dutenak edo aire libreko kirol-jarduera egiteko materiala gordetzeko lekua behar dutenak. Baita unibertsitateko ikasleen kasuan (ere), ba, urtetik urtera trasteak atzera eta aurrera eramaten ibili beharrik gabe, gauzak ikasten ari diren hiri horretan gordetzera (gordetzeko) beharra dutenak. Askotariko behar horien atzean, asko dira negozio honetan errentagarritasuna ikusi duten norbanako eta enpresak, eta, inbertsio txiki-ertaina eskatzen duenez, epe laburrean ematen du errentagarritasun handia. Kopurua, bataz (batez) beste, % 14koa.

TRANSKRIPZIOA

Iñaki Guridi: % 14ko errentagarritasuna aurkitzen dute inbertsio hori egiten dutenek; alegia, trastelekuen negozioan sartzen direnek. Ez daude horrelako errentagarritasuna ematen duten inbertsio asko.
Oihane Yustos: Ez, eta, gainera, arriskua txikia da; inbertsio segurua, nolabait esanda. Sarean arakatzen ibili gara, eta sekulako iragarki pila ikusi dugu. Negozio honetara bideratutako enpresak ireki eta ireki ari dira, eta adi: udalak ere hasi dira biltegiratzeko zerbitzuak eskaintzen; horretarako, hutsik dituzten lokalak baliatu dituzte. Azpeitian aurkitu dugu adibidea.

Mikel Odriozola: Guk, Alde Zaharra bizigarriago egiteko, ba, bueno, Alde Zaharrera bizitzera etorri den (diren) pertsonentzako (pertsonentzat), ba, bueno, jendearentzako (jendearentzat), ba, pixka bat gauzak errazteko. Badakigu Alde Zaharra, bere (haren) etxeen ezaugarriengatik-eta, askok igogailurik ez dute, edo igogailua dutenak (dutenek) eskailera estuak dituzte, edo garajerik ez dute, edo ganbararik ez dute... Orduan, bueno, ba, Alde Zaharreko bizilagunekin-eta egiten ditugun bileretan, eta beraiek (haiek), ba, problematika hori azaltzen ziguten. Orduan, ideia hori sortu zen: ba, bueno, ba, trasteleku batzuk egitea. Eta, egia esan, oso erantzun ona izan zuen, auzotar mordo bat etorri ziren (zen)...
Oihane Yustos: Mikel Odriozola Azpeitiko Udaleko zinegotziak dio harrera bikaina izan duela ekimen honek, hilean 25 €-ren truke, dagoeneko esleitu dira Alde Zaharrean herritarren eskura jarritako 27 trasteleku horietatik, 24.
Iñaki Guridi: Nolanahi ere, gutxi dira halako eredu publikoak, eta hiri eta herri gehientsuenetan zabaltzen ari direnak dira, ba, trasteleku pribatuak. Joseba Barandiaran, ekonomialaria, egun on.

Joseba Barandiaran: Halan ekarri.
Iñaki Guridi: Inbertsioa eskatzen du, baina aipatzen dutenagatik, epe laburrean errekupera daitekeen inbertsioa eta errentagarritasun handia ematen duena.
Joseba Barandiaran: Bueno, itxurazkoa emango du, ezta? Pandemiatik hona, Espainian eta Hego Euskal Herrian Europan baino oraindik hamar gehiago hazi da sektore hori, eta, bueno, ba, egia da gure gizartearen argazki oso aproposa edo adierazgarria ematen duela, ez? Batetik, etxebizitza geroz eta txikiagoak, kontsumo-gizartea, geroz eta traste, gauza gehiago gure inguruan, eta, bueno, horiek, ba, nonbait edo nolabait kokatzeko aukera hori, ez? Eta, era berean, hainbat lokal komertzial ere badira geure inguruetan, ba, komertzio txikiak dituen arazoengatik batik bat, ba, erabili gabe daudenak, edo, bueno, mota honetako erabilera ere eman dakiekeenak.